

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

2234

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2018ko ekainaren 25ekoa, Osasuneko sailburuarena, Lehen Mailako Arretako Euskadiko Aholku Batzordea eratzten duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Aipatutakoen moduko hutsak egin dira Lehen Mailako Arretako Euskadiko Aholku Batzordea eratzten duen Osasuneko sailburuaren 2018ko ekainaren 25eko Aginduan (2018ko uztailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 136. zk.). Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2018/3666 (3/2) orrialdean, 4.c) artikuluan,

honako hau dio:

«Bokal bat Geriatria Medikuntzako Espainiako Elkartearen proposamenez (Semeg).»

Baina honela behar du:

«Bokal bat Mediku Orokorren eta Familiakoen Espainiako Elkartearen proposamenez (Semg).»